

Gobernu taldeak 2021erako orain aurkeztutako inbertsio planaren alde egingo du Laudioko EH Bilduk

Santi Hernando: "Inbertsio plan honetan guk egindako ekarpenetako asko jasotzen dira, eta laudioarron alde urrats bat aurrera egingo dugu oraingoan ere".

Laudio, 2021.05.12. EH Bilduk EAJ-PSE gobernu taldeak gaur arratsaldean ospatuko den udal osoko bilkuran aurkeztuko duen inbertsio planarekin bat egingo du. Proposamen honetan EH Bilduk 2021erako aurrekontuen eztabaidan aurkeztutako hainbat proposamen aintzat hartu dira.

2021eko ekitaldirako kontu publikoen aurrekontu-eztabaidan, EH Bilduk inbertsio errealean proposamen sorta bat erregistratu zuen, herritarren eta gure udalerriko gizarte, kultura eta kirol eragile askoren eskariarekin bat datozenak; proposamen horiek Herria egiteko ildoan zihoazen, beti talde subiranista defendatu duen ildoan. Sei hilabete igaro dira EAJ-PSE gobernuak hura aztertzeari eta eztabaidatzeari uko egin zionetik, eta, nahiz eta EH Bilduk azaroaren 9an erregistratu zuen inbertsio-proposamena anbizio handiagokoa izan, positibotzat jo dute inbertsio horietako batzuk gaur osoko bilkurara joango den proposamenean jasotzea. *"Gobernu taldeak askotan esan digu gure ekarpenak ez direla onak baina oraingoan hala ez direla izan adierazi digute, horietako asko baitira gaur arratsaldean bozkatuko ditugunak"*, agerian utzi du Santi Hernandok.

"Esateko modurik onena egitea da, eta, ondorioz, inbertsio planari emango diogun botoa aldekoa izango da" aurreratu du Hernandok, eskua luzatzeko politikarekin eta legegintzaldian zehar EH Bilduk defendatu duen herritarren bizi kalitatea hobetzeko akordioetara iristeko prestutasunarekin bat etorritz. Laudioarron beharren alde egiteko borondatea dagoenean akordioetara heltzeko arazorik ez dagoela nabarmendu nahi izan du EH Bilduk.

EH Bildu de Laudio apoyará el plan de inversiones que presenta ahora el equipo de gobierno para 2021

Santi Hernando: *"En este plan se recogen muchas de las aportaciones que nuestro grupo ha hecho y vamos a avanzar un paso a favor de los y las laudioarras esta vez también".*

Laudio, 12.05.2021. EH Bildu se suma al plan de inversiones que el equipo de Gobierno PNV-PSE presentará en el pleno municipal que se celebra esta tarde. En esta proposición se han tomado en consideración varias de las propuestas presentadas por EH Bildu en el debate de presupuestos para 2021.

Durante el debate presupuestario de las cuentas públicas para el ejercicio 2021 EH Bildu registró una batería de propuestas de inversiones reales, realizables y acordes con la demanda ciudadana y de muchos de los agentes sociales, culturales y deportivos de nuestro municipio. Propuestas que iban en la línea de hacer Pueblo que siempre ha defendido la formación soberanista. Seis meses después de que el gobierno EAJ-PSE se negara a su consideración y debate, y, a pesar de que la propuesta de inversiones que EH Bildu registró el 9 de noviembre era más ambiciosa, la formación valora positivamente que se recojan parte de las mismas en la propuesta que irá a pleno hoy. *"El equipo de gobierno nos ha dicho muchas veces que nuestras aportaciones no son buenas, pero esta vez nos han manifestado que no es así, porque muchas de ellas son las que vamos a votar esta tarde"*, ha señalado Santi Hernando.

"La mejor forma de decir es hacer y, en consecuencia, nuestro voto al plan de inversiones será favorable" ha adelantado Hernando, en coherencia con la política de mano tendida y disposición a llegar a acuerdos que mejoren la calidad de vida de la ciudadanía que ha defendido EH Bildu durante la legislatura. EH Bildu ha insistido en que no hay problema en acordar cuando hay voluntad de apostar por las necesidades de la ciudadanía.